

LAZKAO / Euskarazko liburuak merkeago erosteko azken aukera

Topaguneak abian jarritako 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpainaren seigarren edizioa amaitzear da. Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, %25eko deskontuarekin erosi ahal izango dira liburuak

Askorentzat uda da irakurketari gustuko denbora eskaintzeko garairik onena. Patxadaz, hondartzan, mendian, kolean... irakurtzeko aukera ematen duena. Datozen hilabeteetarako libururen bat erosteko momentua izaten da, beraz, hauxe. Eta, gainera, ohi baino merkeago eros badaitezke are eta hobeto. Horretarako, ordea, azkar ibili beharko da gaur izango baita horretarako azken eguna Gerriko liburu dendan.

Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, aurten ere Topaguneak 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpaina jarri du abian hainbat herritako euskaldunon elkartek, udal liburutegiak eta liburu dendak elkarlanean jarrita. Seigarren edizioa izan du aurtengoa ekimen honek eta bi hilabetez gauzatu da 15 herritan, horien artean, Lazkaon.

Hala apirilaren amaieraz geroztik edozein bizilagunek %25eko deskontua jaso ahal izan du, egitasmoan eskatzen den lana eginez gero. Goierriko Euskal Eskola kultur elakrteko kideek, berriz, %50eko deskontua izan dute. Egin beharreko lantxo hori, erraza izan da. Izan ere, kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausu eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausua irakurtzea da; euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere. Horretarako, herriko liburutegi ra joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu behar zen.

Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, eta fitxa single-single bat bete behar zen: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea ematen zuen, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko.

Azken eta hirugarren pausua, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati. edo norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein libururen erosketan %25eko deskontua izango dugu, %50ekoa euskaldunon elkarteko kidea izanez gero. Eta gaur da, hain zuzen ere, Gerriko liburu dendan deskontu hori lortzeko azken eguna.